

166. FITXA GIPUZKOA – Ezohiko euriteek eragindako kalteak konpontzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei zuzendutako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarriak eta 2025eko deialdia onestea: ezohiko euriteek eragindako kalteak konpontzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei zuzendutakoak](#)

Eremuak: Azpiegiturak

Zenbatekoa: 1.200.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/09/23 (12:00etan).

Laburpena

Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2025eko maiatzaren 14an eta 19an eta ekainaren 13an eta 14an izandako **ezohiko euriteen** ondorioz kaltetutako udalerrietan izandako **kalte materialak konpontzeko edo lehengoratzeko** dirulaguntzak, eta, zehazki, **udal titulartasuneko ondasunek** jasandakoak konpontzeko.

Dirulaguntzak emateko prozedura **lehiarik gabeko konkurrentzia** izango da, aurrekontu-baliabideak agortu arte.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak jarraian zerrendatzen diren eremuen barruan egin diren, egiten ari diren edo egingo diren jarduketak izango dira, eta 2025eko maiatzaren 14an eta 19an eta ekainaren 13an eta 14an izan ziren ezohiko euriteek udal titularitateko ondasunetan eragindako kalteak, konpontzea edo lehengoratzea izango dute helburu:

- Azpiegiturak (kaleak, plazak, bide publikoak, bizikleta bideak, zubiak etab.) eta ekipamenduak eta instalazio nahiz zerbitzuak konpontzea edo lehengoratzea.
- Ur deposituak eta ura banatzeko sareak konpontzea edo lehengoratzea.
- Laguntzaren xede diren jarduerekin lotutako proiektuak idazteari eta obrak zuzentzeari dagozkien ordainsariak.

Ez dira diruz lagunduko euriteak ondasunean eragin dituen kalteak zuzentzeko beharrezkoak diren lanak gainditzeko dituzten obren zatiak, hobekuntza teknikorako beharrezkotzat jotzen diren edo kostuak murrizten dituzten aldaketak izan ezik, ezta obra horiei dagozkien proiektuen idazketa eta obrak zuzentzeko lanak ere.

Aseguratu beharreko ondasunetan eragindako kalteen kasuan, aseguru-erakundeetatik edo aseguruak konpentsatzeko partzuergoetatik jaso edo jaso beharreko kopuruak gainditzeko dituzten zenbatekoak bakarrik izango dira diruz lagungarriak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak **2026ko ekainaren 30rako** amaitu beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzak kostu hautagarrien **% 50** izango dira.

Salbuespenezko kasuetan, erakundeek ezin badituzte egin beren baliabide propioekin, jasotako laguntzak edo ekarpenak barne, dirulaguntzaren xede diren jarduerak, Ogasun eta Finantza Departamentuak udalaren egoera ekonomikoari buruzko txostena egin ondoren, laguntzaren ehunekoa **% 75eraino** handitu ahal izango da, jarduera bideragarri egiteko behar den ehunekoan.